

BIZI HITZA

Abuztua 2024

«Jauna, zein ederki gauden hemen!» (Mt 17, 4).

Jesus Jerusalemera doa bere ikasleekin. Han sufritu, hil eta berpiztu beharko duela iragartzean, Pedro oldartu egiten da, etsipenaren eta ulertu ezinaren bozeramaile bihurtuz. Orduan, Maisuak Santiago eta Joanekin batera eramaten du, «mendi garai» batera igotzen da, eta han agertzen zaie hirurei argi berri eta aparteko batean: haren aurpegia «eguzkia bezain distiratsu jarri zen», eta Moises eta Elias profeta hizketan ari dira berarekin. Aitak berak bere ahotsa hodei argitsu batetik entzunarazten du, eta Jesus, bere Seme maitea, entzutera gonbidatzen ditu. Esperientzia harrigarri horren aurrean, Pedrok ez luke handik alde egin nahi izan, eta esaten du:

«Jauna, zein ederki gauden hemen!».

Jesusek bere lagun minenak esperientzia ahaztezin bat bizitzera gonbidatu ditu, beti beren baitan gorde dezaten. Guk ere, agian, harriduraz eta zirraraz bizi izan dugu Jainkoaren presentzia eta ekintza gure bizitzan, amaierarik ez izatea nahi genukeen poz, bake eta argi uneetan. Kasu askotan besteekin edo besteei esker bizi ditugun uneak dira, elkarrekiko maitasunak Jainkoaren presentzia erakartzen duelako; izan ere, Jesusek agindu bezala, «nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean» (Mt 18:20). Batzuetan, intimitate une hauetan, Berak gure burua ikusarazten digu eta gertaerak bere begiradaren bidez irakurtzen ditugu.

Esperientzia hauek bidean aurkitzen ditugun zailtasun, proba eta oinazei aurre egiteko indarra izateko ematen zaizkigu, bihotzean ziurtasuna edukiz, Jainkoa begira daukagula eta salbazioaren historiaren parte izatera deitu gaituela.

Izan ere, menditik jaitsi ondoren, ikasleak elkarrekin joango dira Jerusalemera, eta han itxaropenez betetako jendetza izango dute zain, baina baita arrisku, liskar, arbuio eta sufrimenduak ere. Han «sakabanatu eta lurraren mugetara bidaliko dituzte gure behin betiko bizilekuaren, Jainkoaren Erreinuaren, lekuko izan daitezen»¹.

Mendian Jesusekin «etxean» egon direlako hasi ahal izango dute lur honetan Jainkoaren etxea eraikitzen gizakien artean.

«Jauna, zein ederki gauden hemen!».

«Zuti zaitezte. Ez beldurtu!» (Mt 17:7) da Jesusen gonbidapena aparteko esperientzia honen amaieran, guri ere zuzentzen diguna. Bere ikasle eta lagunak garen aldetik, ausardiaz egin diezaiokegu aurre zain dugunari.

Hala gertatu zitzaion Chiara Lubich-eri. Berak ere ez zukeen eguneroko bizitzara itzuli nahi izango, oporraldi hain argitsu baten ondoren; «1949ko paradisia» deitua izan zen,

¹ T. RADCLIFFE, OP, Gotzainen Sinodoaren Batzar Nagusiko partaideen bigarren gogoeta, Sacrofono 2023-10-1

atseden pixka bat hartzen ari zen komunitate txikian izan zuten Jainkoaren presentziaren pertzepzioagatik eta fedearen misterioen kontenplazio aparteko batengatik. Itzuli zen, eta bultzada berri batekin, argitzapen esperientzia harengatik «menditik jaitsi» behar zuela ulertu zuelako, eta Jesusen tresna gisa bere Erreinuaren gauzatzean lan egin behar zuela, hain zuzen ere falta zen lekura bere maitasuna eta argia eramanez, eta, gainera, neke eta sufrimenduei aurre eginez.

«Jauna, zein ederki gauden hemen!».

Aldiz, argia faltan botatzen dugunean, itzul gaitezen bihotzarekin eta adimenarekin Jaunak argitu dizkigun uneetara. Eta haren hurbiltasuna sentitu ez badugu, bila dezagun. «Mendira igotzeko» ahalegina egitea beharrezkoa izango da, Bera gure lagun hurkoetan aurkitzeko, gure elizetan gurtzeko eta baita naturaren edertasunean kontenplatzeko ere.

Izan ere, Jesus beti hor dago guretzat: aski dugu Berarekin ibiltzea eta, Pedro, Joan eta Santiago bezala, isilunea eginez umiltasunez entzuten jartzea (ik. *Mt* 17:6).

Silvano Malini eta Bizi-Hitzako taldea